

A *berdin-
tasuna

Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2020 - 2023

Ebaluazioa eta erronken identifikazioa

Bertsio laburtua



Astigarragako Udala

Diruz lagundu du:



Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak 2020tik 2023ra arteko indarraldia izan du. 2023ko maiatzetik eta azaroa artean burutu dugu III. Planaren ebaluazioa eta aurrera begirako erronken identifikazioa.

40 lagunek eta 5 elkartek parte hartu dute lanketa horretan. Hurrengo urratsa denon artean IV. Plana diseinatzea izango da.

III. Planaren ebaluazio-txosten osoa, hemen:

 astigarraga.eus/berdintasuna

EGITURA

Astigarragako Berdintasunerako III. Planak (2020-2023) EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren helburu, printzipio, egitura eta kudeaketa-sistemarekin bat egiten du.

4 ESKU-HARTZE EREMU ditu: "Gobernu Ona" (erakunde-aldaketarako eta/edo barne funtzionamendurako erronkak Udalean) eta herritarren esku-hartzerako 3 ardatz nagusiak (izaera sozialeko erronkak). Horietako bakoitzean, jarduera-jarraibideak ezartzen dira, programetan eta helburuetan zehaztuta.

	GOBERNU ONA	<i>Udal Barneko Eremua.</i>
1	 <p>Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da.</p> <p>Horretarako, gizarte osorako eredugarria izateaz gainera, Gobernu Onean finkatuta uzten dira gobernu-jarraibideak, aurrekontu-izendapenak, erakunde-akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta zaintza-sistemak.</p> <p><i>5 helburu daude eta 36 ekintza</i></p>	
3 JARDUTE ARDATZ		
	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	<i>Emakumeengan ardaztua.</i>
2	 <p>Emakumeen, neska gazteen eta neskatilen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea.</p> <p>Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako.</p> <p>Emakumeak ahaldundu gabe, ez dago berdintasunik.</p> <p><i>3 helburu daude eta 26 ekintza.</i></p>	
	GIZARTE ANTOLAMENDU BERTINZALEA	<i>Ingurune sozio-ekonomikoa.</i>
3	 <p>Beharrezkoa da eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkorrako eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.</p> <p><i>3 helburu daude eta 22 ekintza.</i></p>	
	INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	<i>Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berroneratzea eta erakundeen arteko koordinazioa.</i>
4	 <p>Arreta jartzen da, batetik, prebentzian, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzeko diren arte).</p> <p><i>3 helburu daude eta 17 ekintza.</i></p>	

Guztira, III. Planak 13 helburu eta 101 ekintza dauzka.

BALIABIDEAK ETA EBALUAZIOA

Baliabideak

2020tik eta 2023ra Berdintasun sailaren aurrekontua urtez urte igo da (148.145 eurotik 188.752 eurora pasa da) eta **Udal osoaren aurrekontuarekiko duen pisuak ere goranzko joera izan du (% 1,59 izatetik % 1,70 izatera pasa da).**

Planaren epealdian langilegoari dagokionez Berdintasun sailean ezegonkortasuna izan da nagusi, hiru teknikari aldaketa egon dira eta horrek III. Plana gauzatzea eta kudeatzea zaildu ditu. 2022an lanpostua egonkortu da eta ordutik Berdintasun gaietarako teknikari bat dago lanaldi erdiz.



Ebaluazioa

Planaren indarraldiak, eta bereziki lehen eta bigarren urteek (2020 eta 2021. urteek), COVID garaiko alarma-egoerekin eta salbuespeneko neurriekin bete-betean kointziditu dute. Etengabeko aldaketak, ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna gailendu dira eta horrek geldialdia ekarri digu, planaren ekintzak betetzeko oztupoak eta zailtasunak azaleratuz.

Planeko ekintzen betetze-maila % 41ekoa izan da eta ardazka begiratzuz gero, "2. Emakumeen ahalduntzea" eta "4. Indarkeria matxistarik gabeko herria" dira betetze-maila altuena lortu dutenak

(% 65ekoa eta % 53koa urrenez urren); betetze-maila baxuena izan dutenak "3. Gizarte antolamendu berdinzalea" (% 27koa) eta "1. Gobernu ona" (% 25ekoa) izan dira.

Langilegoaren ezegonkortasuna dela eta ez da III. Planaren urtez urteko jarraipenik egin, aurreikusita zeuden urteko memoriarik ez dago eta helburuak neurtzeko urtez urteko adierazleak ere bete gabe daude. Egoera hori izanda, **ezinezkoa da helburuen betetze-maila ebaluatzea.**

GOBERNU ONA

LORPENAK

- **Berdintasun politikak aurrera eramateko dauden baliabideak eta azpiegiturak hobetu eta indartu dira:**
 - Berdintasun saileko aurrekontuak urtez urteko gorakada izan du eta berdintasun teknikaria egonkortu da (berdintasun teknikaria % 25eko lanaldian egotetik % 50era pasa da).
 - 2021ean Emakumeon Etxea azpiegitura bezala ireki da.
- **Genero-ikuspegia zeharlerrotasunez udalaren lan-jardunean txertatzeko ahalegina egin da, bereziki dirulaguntzetan:**
 - 2023an onartutako dirulaguntzen ordenantzan berdintasun irizpideak % 10eko pisua dute, baita euskarak ere.
- **Udalak berdintasunarekiko hartu duen konpromisoa herritarrei ikusarazteko, Udal adierazpen instituzionalak onartu dira Udaltzatzen, aho batez** (martxoaren 8an edo azaroaren 25ean kasu).

ERRONKAK

- **Berdintasunerako politiken kudeaketa, planifikazioa eta koordinazioa hobetzea:**
 - Berdintasun sailaren egitekoak planifikatzean, Berdintasunerako Plana lan-tresna gisa erabiltzea.
 - IV. Plana diseinatzean plan errealista egitea (helburu lorgarri eta ekintzakopuruei dagokienez) eta Planean zehaztuta dauden kudeaketa-sistema eta ebaluazio-sistemak gauzatzea (urtero adierazleak betetzea, memoriak osatzea, departamentuarterko egituren jarraipen-bilerak egitea...)
- **Genero-ikuspegia zeharlerrotasunez udalaren lan-jardunean txertatzea** (lan-prozeduretan, kontratutan, langileen trebakuntzan, komunikazio ez sexista eta inklusiboan...).
- **Udalak berdintasunarekiko hartu duen konpromisoa herritarrei ikusaraztea:** Udalaren webgunean berdintasuneko atala berregituratzeko eta eguneratzeko beharra.
- **Udala erakunde berdinzalea izateko pausoak ematea:** Udal barruko Berdintasunerako plana diseinatzeke eta sexu-jazarpen eta jazarpen sexisten aurkako protokoloa lantzeko beharra.



ESKU HARTZEKO ARDATZAK

Astigarraga; nabarmentzen gaituen bi datu:

Herri gaztea

Azken 15 urtetan herriaren biztanlegoa ia bikoiztu egin da eta nabarmena da Astigarragak duen populazio gaztea. 65 urtetik gorako populazioa Gipuzkoan, % 23koa bada, Astigarragako % 12,40koa da eta 20 urtetik beherako biztanlegoa Gipuzkoan % 19,3a izanik, Astigarragako % 24,20koa da (Eustat, 2023).

Emakume langabetuak, gizonezko langabetuen ia bikoitza

Euskadi mailan 2020an emakumeen langabezia tasa % 10,8koa izan zen eta gizonezkoena % 10,5koa. Astigarragan, aldiz, sexuen arteko aldea nabarmena da: 2021. urtean gizonezkoen langabezia 4,9 puntukoa izan zen, emakumeen langabeziaren ia erdia -emakumeena 8,9 puntukoa (Emakunde, 2020 eta 2021).

1. ardatza


Emakumeen ahalduntzea

LORPENAK

- **Astigarragako Emakumeon Etxea sortzeko prozesua gauzatu da eta Etxea ireki da**
Udalak eta herriko elkarte batek elkarlanean Emakumeon Etxea ireki dute, herriko emakume guztien topagune gisa. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea da Etxearen helburu nagusia eta horretarako ekintza anitzak eskaintzen dituzte (tailerrak, hitzaldiak, zineforumak,...).
- **Berdintasun Mahai Txikia foroa martxan**
Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzeko Berdintasun Mahai Txikia foroa sortu da, zeinetan herriko hainbat elkartek, Udal Berdintasun Sailak eta Gaztelekuko kideek parte hartzen dute. Bereziki, herriko jaiak eta berdintasunarekin lotura duten egun esanguratsuak elkarlanean antolatzeko biltzen dira.
- **Herriko emakumeek egindako ekarpenak aitortzeko eta horiei ikusgarritasuna emateko ekimenak**
 - Astigarragako emakumeen historia berreskuratzeko ikerketa-bekak argitaratu dira; dagoeneko 3. deialdia izan da aurtengoa. 1. deialdiaren emaitza Amets Castrejanaren lana liburu batera ekarri da.
 - Kiroletik eta kulturatik ere antolatu dira emakumeen ekarpenak ezagutarazteko ekimenak.

ERRONKAK

- **Astigarragako Emakumeon etxea ezagutaraztea eta indartzea.** Bi urteko ibilbidea egin du Etxeak eta herritarrekin gogoeta egiteko tarte hartzea merezi du aurreikusitako helburuen betetze-maila, funtzionatzeko modu, lehentasun eta espazioari buruzkoa.
- **Mugimendu feminista indartzea**
- **Emakumeen arteko sareak sustatzea**
- **Egoera zaurgarrian dauden emakumeengana iristea**
- **Neska gazteen ahalduntzea**



2. ardatza


Gizarte antolamendu berdinzalea

LORPENAK

- **Harreman parekideak sustatzeko ekintzak:**
 - Herritarrei zuzendutako sexu aholkularitza zerbitzua
 - Gaztelekuko erabiltzaile eta hezitzaileentzat tailerrak
- **Herriko komertzioetan emakumeen egoera ezagutzeko ikerketa**
- **Beterri Buruntzaldearekin elkarlanean emakumeak kontratatzeke ekimena eta beste hainbat proiektu**
- **Zaintzari buruzko bi ikerketa: Beterri Buruntzaldeari buruzkoa eta Astigarragan propio landutakoak**

ERRONKAK

- **Herritarrak berdintasunean hezten jarraitzea, hezkidetzaren balioak biztanleriaren artean zabalduz.**
- **Gizonak, mutil gazteak eta mutilak inplikatzeko eta euren erantzukidetasuna eta arduraz gogoeta egitea.**
- **Emakumeen langabezia-tasa murrizten eta enplegu duina sustatzen urratsak ematea (mankomunitatearekin elkarlanean).**
- **Zaintza erdigunean jarriko duen gizarte erantzukidea sustatzea**



3. ardatza

Indarkeria matxistarik gabeko herria

LORPENAK

- **Udalak jarrera irmoa.** Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa adierazi du: adierazpen instituzionalak eginez Euskal Herriko erailketa edo herriko eraso matxisten aurrean eta Emakumeon Etxeak deitutako konzentrazioekin bat eginez.
- **Sentsibilizazioa eta prebentzioa.** Azaroak 25ean hainbat ekintza antolatuz herriko eragileekin elkarlanean, hezkuntza - komunitatean haur eta nerabeen eta Gaztelekuko erabiltzaileen arteko harreman parekideak sustatzeko tailerrak
- **Arreta hobetzeko koordinazioa eta protokoloa gauzatzea.** Eraso baten aurrean biktimen artatzea egokiagoa izan dadin udaltzaingoak trebakuntza jaso du eta 2019an onartutako protokoloa martxan jarri da.
- **Emakumeei zuzendutako aholkularitza juridikoa jarri berri.** Indarkeria matxista kasuak, atzerritartasuna, lana edo familia gaiei buruzko doako aholkularitza ematen da hamabostean behin Emakumeon Etxean.

ERRONKAK

- **Erantzun sozialean jarrera irmoa mantentzea.**
- **Instituzioen arteko koordinazioarako protokoloa berritzea.** Arau aldaketak direla eta beharrezkoa da 2019an sortutako protokoloa eguneratzea eta beste erakunde batzuekin koordinazioa bermatzea: Ertzaintza, Epaitegiak, Osakidetza, Hezkuntza, eta abar.
- **Maskulinitate berriak lantzea eta gizonak, mutil gazteak eta mutilak inplikatzeko.**
- **Udal barruan sexuagatiko jazarpenera eta jazarpen sexualari aurre egiteko protokoloa sortzea.**
- **Haur eta nerabeen aurkako indarkeria matxistan fokua.** Herriko elkarteekin eta udal zerbitzuren bat ematen duen enpresekin batera, Haur eta nerabeekin harremana duen edonori trebakuntza emango zaio eta protokolo baten lanketa bideratuko da.





Astigarragako Udala

Diruz lagundu du:

